

## GATAZKEI AURRE EGITEN IKASTEN DUGU

Hainbat IDEIA  
ikasketa  
honi buruz:



## ETA NIK... NOLA EGINGO DIET AURRE NEURE GATAZKEI?


1. **Unea aukeratzea** oso garrantzitsua da. Itxaron apur batean, gero errazagoa izango da.
2. Lehendabizi, **lasaitu**.
3. **Utzi hitz egiten** solaskideari harik eta esan behar duen guztia esan arte. Hobe ez baduzu haren berbaldia eteten.
4. **Entzun** arretaz esaten dizutena.
5. Saiatu solaskideak diotsuna **ulertzen**.
6. **Galdetu** ulertzen ez duzuna.
7. Esan zer uste duzun eta nola **sentitzen** zaren.
8. Ahalegindu **salaketak**, gaizki esanak, exijentziak baztertzen.
9. Ziurtatu solaskideak zuk esandakoa ulertu duen.
10. **Bilatu zertan zatozten bat!** Beti dira bioi komeni zaizkizuen gauzak.
11. **Bilatu konponbideak** bion artean.
12. **Jarri abian**.

# GATAZKEI AURRE EGITEN IKASTEN DUGU

1. jarduera:



BEGIRATU ARRETAZ ASTO HAUEI



## ESAI DAZU...

- ZER GERTATZEN ZAIE AŞTOEI?
- BAZEUKATEN ARAZORIK?
- NOLA KONPONDU DUTE?
- PENTSA EZAZUE ZUEN BIZITZAKO EGOERAREN BATEAN: HASIERAN, ARAZO BAT KONPONEZINA ZELA PENTSATU ARREN, HORRETAZ HITZ EGIN ETA GERO, KONTURATU ZARETE BADUELA KONPONBIDERIK.

